

Frantzia kontserbadorearen errege berria



Frantziako presidente berria iragarri bezain laster, errege-erreginen antzeko jarraigoa izan zuen Nicolas Sarkozyk. Boétie kaleko Gaveau antzokira iritsi aitzin, minutuak eta minutuak eman zituen Parisko karraketan barrena, kabalkadan. 20:30etan azaldu zen bere jendearen aurrean. Ordu erdi bat lehenago, bozkatzeko bulegoak itxi bezain laster, Ségolène Royalek –beste frantziarrek amestutako erregina– Maison de L’Amerique Latine-n mintzatu zen. Txanpon bereko bi aurpegiak: nahigabea eta loria. Itxurek estaltzen zuten bakoitzaren barne prozesioa.

MIKEL ASURMENDI

SUSPENSEA ISLATU ZUTEN Frantziako telebistek, igande gauean, bozkatzeko bulegoak ixteko ordu bat falta zelarik. Itzela zen Frantziako presidente berria ezagutzeko jakin-mina. Bi hautagaien-tzako suspensea itxurazkoa zen, alta. Royalek bazekien ordurako galtzailea zela, baita Sarkozyk V. Errepublikako seigarren presidentea izango zela ere.

Suspensea eta ilusioa

Frantzia krisi larrian dela esan ohi da. Ezin esan ordea, demokrazia krisian dagoenik. Hauteskunde hauetako bi itzulietan boz emaileen %85ak parte hartu du. Errepublikak arazo handiak ditu: Europar integratzea, enpleguaren eta etorkinekiko politika... besteak beste. Demokrazia sistema sendoa da, ordea, eta frantziar hiritarrak hautagai kontserbadorearen alde egin du. Sarkozyren eskuinak 19 milioi boz erdietsi du (%53,06), Royalen ezke-

rrak 17 milioi (%46,94). Royal Frantziaren aldatetaren ikurra zen. Alabaina, bitxia da, presidente kontserbadore berriak aldateta hitza erabili du lehen diskurtsoan, Frantziaren-tzako aldateta iragarri du. Royalek berak presidente berriaren diskurtsoa erabil zezakeen bera aukeratu izan balute.

Aldaketa gauzatzeko erreforma aipatu du presidente berriak. Sarkozy Gobernuako kide izan da luzaz, baina ez du erreforma bakar bat ere gauzatu. Kontserbadoreen abilezia, antza, dena mugitzea da, deus ez aldatzeko. Politika ilusioen jarduna da eta aldion gainera, ilusioa eta suspensea uztartzen dira.

Ezkerren ilusioa eta suspensea

Suspensea kontserbadoreek mantendu ohi dute, zerbait aldatuko den ilusioa piztuz. Artean, ezkerria mundua

aldatuko duen ilusioarekin bizi da. Ahuleziatik ateratzeko balore eta estrategia berriak behar omen ditu ezkerrek. Horrela diote behintzat, Royalen ezkerrean dauden PSko kideek.

Sistema, sistema demokratikoa eta kontserbadorea, sendo dago. Krisia ezkerrean dago. Ezkerria dago krisian. PS krisian dago, baita ezkerreko gainerako alderdiak ere. Ségolène Royalen ezkerrek, zentroa irabazi nahi duen ezkerrek, porrot egin du.

Asanblea Nazionalerako bozak

Zein da datozen ekaineko Asanblea Nazionalerako bozetan eskuinaren alternatiba? Royalek entseiatu duen zentro-ezkerreko aukera edo ezkerreko aldeko askotariko ezkerria? PSko idazkari nagusi François Hollandek ditu hitza eta zeregina. Bere etxean dago suspensea. ■